

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

Bost batzorde eratu udalbatza berriak /08

UDALEKUAK

Festa ederrarekin agur udalekuei /09

LEINTZ GATZAGA

Omenaldia txirrindulari ohiei /10



ANDRAMAIXETARAKO GERTU

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	943 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 79 22 33
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTZAINGOA

Arrasate	943 79 14 39
----------	--------------

LARRIALDIAK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

GUARDIAKO FARMAZIA

UZTAILAREN 16TIK ABUZTUAREN 16RA
ITURRALDE, Mitarte 18... 943 79 27 22

ABUZTUAREN 16TIK IRAILAREN 16RA
FRAILE, J. Herriko Plaza 10... 943 79 21 99

OHARRAK

SANTIAGO JAIK GOROETAN
Goroeta auzoan Santiago jaiak ospatuko dituzte. Gaur, eguena, txikiteoa egingo dute. Bihar, egubakoitza, 12:30ean meza nagusia izango dute, eta gero luntxa. Zapatuan, berriz, mus eta briska txapelketak egingo dituzte 17:00etan hasita; 18:00etan umeendako jolasak egongo dira eta 21:00etan auzo afaria. 23:00etatik aurrera dantzaldia izango dute Tome soinu jotzailearekin.

EPEH ARGAZKI LEHIAKETA
EPEH plataformak Argazki Lehiaketa antolatuta du. Izaratxoa oporretan eroan eta harekin argazkia atera behar da. Argazkia irailaren 30a baino lehen udaletxe zaharreko atartean dagoen kaxan sartu behar da.

ORAINDELA 3URTEARETXABALETAN

Felix Iñurrategi hil zen G-II mendian

Orain dela hiru urteko uztailaren 28an hil zen Felix Iñurrategi mendizale aretxabaletarra. Alberto eta Felix anaiak Gasherbrum-II mendi tontorrera iritsi eta gero beherantz zihoazela gertatu zen ezbeharra. 400 metrotik behera erori eta betiko gertatu zen G-II mendi magalean.



BERTAKO BERRAK/ Juan Martin Elexpuru

"Madala"

Zuhaitz adar txikia.
—Azkarran madala ibiltze giñuan Idurixon ganauei eulixak kentzeko.
—Keixa guzti onek madaltxo batek zeuzkan.



GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKOTXOKOA

Liburutegia oporretan



Uztailaren 30ean, eguaztenez, Udal Liburutegiak ateak itxiko ditu. Hori dela eta, honako ohar hauek eman gura izan ditu liburutegiko arduradunak:

-Uztailaren 30etik abuztuaren 25era bitartean egongo da itxita.

-Bai uztailaren, bai abuztuaren, zabalik dagoen bitartean udako ordutegia izango du: astelehenean 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; gainerako egunetan goizez bakarrik.

-Oporretan irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko asmoz, mailaguen gaineko arauak aldatuko dituzte: batetik, ohi baino liburu gehiago hartu ahal izango dira, lau, guztira; bestetik, liburua bueltatzeko epea luzatu egingo dute. Hala, liburua aste honetan hartuz gero, abuztuaren 30era arte ez duzue itzuli behar.

-Gogoratu liburua aukeratzeko Biblioporrak gida duzuela.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Asier Dacosta
16an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Mikel Egia
21ean, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Leire Estévez
21ean, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Unai, Oier eta Jon Ander.



ESKORIATZA
Asier Arzaburu
24an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Xabier Umerez
26an, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako, Almengo lagun partetik.



ARETXABALETA
Alaitz Errasti
27an, 24 urte. Zorionak, lagunak, etxeko eta mutilaren partetik.



ARETXABALETA
Andoni Miguel
27an. Zorionak eta muxu handi bat, loba guztien partetik.



ARETXABALETA
Fran Miguel
27an. Zorionak eta muxu handi bat, loba guztien partetik.



ARETXABALETA
Manolo Zubillaga
Abuztuaren 10ean. Zorionak eta muxu bat aita! Xabier, Leire eta Maria.



ARETXABALETA
Nahia Martín
20an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Ane Martín
20an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



GATZAGA
Iker Barandiaran
22an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat! Familia-koen partetik.



ARETXABALETA
Edorta Mendieta
27an. Zorionak, Presi!, ARETXAGAZETAKO lagun partetik.

BABESLEA

FOTOSINTESIS



Errebelatu guztiak 24 ordutan

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

Lubia
oinetakoak

beherapenak!

Mitarte 14 • 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53 ARRASATE

IOSU
HARATEGIA


Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte kalea
ARETXABALETA
943 77 03 08

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak


Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28




Hirusta
Jatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Andramaixetan herrixen egongo zara? Zuk ze ekitaldi organizauko zeuke?




LEIRE BIDEGAIN
Ikasle



JON ARIZABALETA
Langillie




MASARO ETXEANDIA
Langillie



ANDONI L. DE ARMENTIA
Langillie



NAIARA ALTUBE
Ikasle



ANDRES LEZETA
Langillie

Bai, hamentxe egongo naz. Ken 7. taldien kontzertue entzungo neuke gustora. Eta uste dot Joseinaren Dis-ko Festak animaziño haundixe jarriko leukela Andramaixetan.

Ez dakit, baiñe seguruenik ez naz egongo. Nik neuk umiendako barraka gehixau jarriko neuke. Horretaz aparte, antzerkixek eta musika emanaldixek organizauko neuke.

Bai, horixe! Umiendako ekitaldixek eskatuko neuke. Nik gabetan ez dauket urte- teko aukera haundirik; hortan, umiendako antzerki eta jolasekin konformau biherko naz.

Beste urte batzutan egon izen naz, baiñe aurten ez dot uste. Andramaixetan gau- za bakarra igerten dot fal- tan: atsalde partien, txiki- teuen-eta ibiltteko musikie falta izeten da.

Ondiokan ez dakit egongo nazen edo ez. Gatibu edo holako musika talderen baten kontzertuek entzun gureko neuke. Horretaz aparte, barraka gutxi egoten die; gehixau jarriko neuke.

Bai. Ekitaldixak baiño gehixau, herrittarrak herriko jaixetan geraketie gurako neuke. Horretaz aparte, girue jarteko mariatxi batzuk eta bertsolari- xek ekarriko neuke.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK NON DAUDE ZEBRABIDEAK? Herrian autoen abiadura murrizarazten duten tontor ugari jarri zituzten. Hala ere, badi- rudi Santa Kurtz kaleaz erabat ahaztu zirela. Tarte handi baten ez dago ez tontorrik ezta zebra- biderik. Ezbeharririk gerta ez dadin auto gidarie- k abiadura moteldu egin beharko lukete gune horretan, bai- na hala izan ezean, non gelditzen dira oinezkoen eskubideak? /A.L.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Iturriko urik ezin edan

Egubakoitzean egindako anali- siak ikusita Udalak iturriko urik ez edateko gomendatu zuen.

ASTEAN BEHIN /05

Andramaixak gertu

Kultura saila eta Jai batzordea ibili dira aurtengo Andramaixak gertatzen. Egita- raua kalean dago.

KIROLAK /06

Kurtzebarriko 75. urteurrena

Irailean beteko dira 75 urte Kurtze- barri mendian gu- rutzea jarri zutela. Ospakizunak gertu daude dagoeneko.

ASTEKODATUA

53.141

EUROKO AURREKONTUA DUTE ANDRAMAIXEK

Aurten, 53.141 euro gastatuko ditu Udalak Andramaixetan. Gas- tu handiena pilota partidu profesio- nalek izango dute, 6.159 euro. Bazkari herrikoian, bestalde, 2.808 euro gastatuko ditu.


BESTEKEESANA

“ Aralar alderdiak, uste dut, Aretxabaleta eraikitze- ko lan horretan badaukagula zer egirik, batez ere ezker ikuspegi batetik.

Azken hilabeteetan lanpetuta egon gara gobernu batzordea osatzen. Izan ere, gure- tako oso garrantzitsua zen batzorde horren eratzea, batez ere gaur egun bizi dugun defizit demokratiko egoeran. Gogoratu behar dugu hainbat pertsona ordez- kari barik gelditu direla Udalean, eta apur bat egoera horri irtenbidea topatzen saiatu gara. Eta momentuz, EAJ-EAk edukiko zuen gehiengo fikziozko hori iritsi garena esan beharra daukat. Uste dut alde horretatik aurrera pausu garrantzitsua eman dutela eta zori- ondu beharrean gaudela.

XABIER SARASUA
GOITB/03-07-14

HERRITARRENBERBAK/ Lore Abarik



India

A skotan pentsatu izan dut loteria, primitiba, kupoia edo antzerakorik tokatuz gero, egingo nituen gauza guztietan, (orain- tx bertan asko etortzen zaizkit burura) –gainera zorionez eta mundu honetan gauza gutxi- bezala, amets egitea dohainik denez– egingo nituen artean duda barik, bat bidaiatzea litzateke.

Bidaiatu. Ez du axola nora; leku berriak ezagutzea da kontua. Hemen, gu- re inguruan Euskal Herri- tik atera gabe edo atzerrian.

Unibertsitatean geundenean, irakasle batek udan atzerri- ra joan gabe egotea galdutako uda zela esaten zigun. Askotan errepikatzen zigun, ahal izanez gero atzerri- ra bidaiatzeko. Ni ez nago guztiz ados honekin. Askotan inguruan ditugunak ezagutu gabe, munduko beste puntara bidaiatzen dugu, eta ez gara konturatzen, hemen oraindik ezagutzen ez ditugun toki zoragarri pila bat bisitatze- ko gelditzen zaizkigula. Gainera

interesantea izateaz bat, aukera hau ekonomikoagoa ere izan ohi da. Eta honetaz at, eta esatera batek oso ondo adieraz- ten duen bezala: “nondik gatozen jakin behar da, nora goazen jakiteko”.

Bestalde, atzerri- ra bidaiatze- zea zoragarria da. Ze ondo

ibiltzen den bidaiat- zen, toki berriak ezagutu, pertsona berriak, kultura berriak... Begiak zabaldu eta toki ezberdinak ikusi. Gainera bidaiatzen denean pilak kargatzen dira; bizitzen duzun guztiaz ikasten da,

toki eta pertsona batzue- gatik asko daukagula ikasteko, eta bestalde eta oso garrantzi- tsua, daukagunarekin ondo baino hobeto bizitzeko dauka- gula konturatze- ko.

Beno, hemen edo kanpoan, zaudeten tokian zaudetela, disfrutatuta oporrak!

OHARRA: Osteguna. Primitiba bota dut. Nire hurrengo iritzi artikulua Indiatik helduko da, segurue- nik...

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



M. J. Aretxaga

Hemen daz oporrak

A illegau jaku hainbeste denporan zain egon garen egune, oporrak hartzen ditudun egune. Zuk ondiokan ez daukatzule, trankil etorriko da hori be. Agur esan aurretik, oster, asteko kontutxo batzuk errepausauko ditudugu. Joan zan astien be komentau nutzuen Gatzagan txirringularitzan alde lan egindeko batzuri omenaldixe egin biher eutziela; azkenien aretxabaletar bi izen zien omenduek **Anjel Arrese** eta **Manolo Zubillaga**. Azkenengo honi sorpresa edarra emun eutzien, ez euen holakoik espero-eta.

Zapatuen, barriz, mus txapelkétie egon zan. Herriko plazan dazen taberna bik antolatu euien eta 10 bikotek hartu euien parte. Txapeldunek **Rico anaiek** izen zien, eta bigarren geratu zienak **Roman eta Errasti**.

Bukaketako eta neskak jakin deizuen hona txutxumutxue: Astore kirol markiek atarako dauen azkenengo kataloguen **Aitor Izarzugaza** agerketan da modelo lanak egitten. Nik, neuk, ez dot ikusi baiñe desietan nau; betidanik pentsau izen jat itxure oneko mutille eta ez nebillen txarto.

Bueno, irakurliok, opor aurretik besterik ez. Ni Andramaixetarako bueltan izengo naz, eta zueik?

EDATEKO URA/Udaleko langileek ez dakite zelan zikindu zen Aozaratza auzora bidean dagoen ur biltegia

Urak koliformeak zituelako Udalak urrik ez edateko gomendioa eman zuen egubakoitz arratsaldean

MIRARI ALTUBE

Joan den egubakoitz arratsaldean etxeko iturrietatik urrik ez edateko gomendatu zien Udalak herritarrei. Arrazoia: egun hartan bertan urari egindako analisietan bakterio organikoa atzeman zuten; koliforme izeneko bakterioa, hain zuzen ere.

Astelehen goizean Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saileko teknikari bat etorri zen Aozaratza bidean dagoen ur biltegia ikustera. Depositua hustu eta garbitzeko erabakia hartu zuen.

KOLIFORME IZENEN BAKTERIOA

Astero egiten dizkiote urari analisiak, eta joan den egubakoitzekoek ez zuten eman ohi bezain emaitza onik. Koliforme izeneko bakterio organikoa zuela zioten, ez asko -5/1.000-, baina bai badaezpadako neurria hartzeko beste. Hori horrela, urrik ez edateko gomendatu zuen Udalak.

Astelehen goizean, bestalde, Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saileko teknikari bat etorri zen Aozaratza auzora bidean dagoen ur biltegia ikustera. Udaleko teknikariek batera ibili zen begira, eta ez zioten ezer antzeman. Asteleheneko anali-




Astelehenean Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saileko teknikari bat hurreratu zen Aretxabaletako ur biltegia ikustera.

siek, gainera, emaitza hobek eman zituzten -1/1.000-, eta martitzenekok, dagoeneko bakteriorik ez zegoela zioten. Hala ere, ur biltegia hustu eta garbitzea erabaki zuten. Hori egin bitartean bil-

tegi zaharretik jasoko dute herritarrek ura.

Ez da samurra arazoa nondik sortu den esatea. Izan ere, Aretxabaletako iturrietara doan ura bakarrik zikindu da. Baliteke ur

hodietafiltrazioaren bat gertatzea eta abereen gorotzetatik etortzea bakterioa, baina baliteke norbaitek ur biltegia zuzenean zikintzea ere. Edozelan ere, arazoa ez da larritzeko adinakoa izan.



Jende ugari batu zen Felix Iñurrategi gogoratzeko

Jende ugari batu zen, zapatu gauean, Felix Iñurrategi orain hiru urte Gasherbrum-II mendian hil zen mendizalearen omenez. Alberto anaia *Hire Himalaya* proiektzioa eskaini zien bertaratutakoei, eta momentu hunkigarriak bizi izan ziren Felixen izenean jarritako harriaren alboan. Horren harira, hurrengo egunean mendi irteera egin zuten, Felix Iñurrategi-Baltistan Fundazioak antolatuta. /M.A.

URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 943 79 79 79
ARETXABALETA

Lie

LURRINDEGIA
OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8
Aretxabaleta
Tel.943 79 94 15

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaial - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

ANDRAMAIXAK/ Aretxabaletarrok ere 'Kutsidazu bidea Ixabel' antzezlan ikusteko aukera izango dugu aurtengo jaietan

Herritar guztioi egokitutako egitaraua egin gura izan du Jai batzordeak Andramaixetarako

MIRARI ALTUBE

Opor usaina hartzen hasita gaude dagoeneko; hala ere, oporretan kanpora joan aurretik komeni da jakitea Andramaixetan zer izango dugun. Mus txapelketa, jolasparkeak, antzerkiak, bazkaria... Urteroko egitaraua herriko jaiak ondo baino hobeto pasatzeko.

Oraingo astean bertan banatuko digute etxetxe Andramaixetako egitaraua. Aurtengo jaiak berritasun gutxi dakarte; hori bai, ondo pasatzeko beharrezkoak diren ekintzez josita datoz.

ANDRAMARI BEZPERA

Ohiturari eutsiz Mus Txapelketa izango da jaietako lehen ekitaldia, abuztuaren 14an. Gizon ugari batuko da Herriko Plazan. Gizonak bakarrik ez, baita umek ere, eurenako parkea jarriko dute-eta. Hala ere, jaietako hasiera ofiziala 19:00etan emango dute. Orduan Ikurrinari agurra egingo diote eta alkateak txupinazoa botako du udaletxetik. 19:30ean meza izango da. Gauean Etxabe anaiek jardungo dute Herriko Plazan, eta XVIII. Bolo Txapelketa izango da bolatokia.

ANTZERKIAK, ASKO ETA ONAK

Andramari egunari txistulariek egingo diote ongiatorria. Udalbatza 12:00etan batuko da, eta meza nagusira joango da. Meza ostea Sopolako Uribe-bazterra bandak girotuko du. Arratsaldean eta



Sokamuturrak ikuskizun polita jarriko du Andramari bigarren eta hirugarrenean.

gauean antzerkiak izango dira ikusgai: batetik, *Elvis vete ya!* antzezlan komikoa eskainiko du Trapu Zaharra taldeak, 19:00etan; eta, bestetik, 22:30ean, entzute

handia lortu duen *Kutsidazu bidea, Ixabel* antzezlan egingo dute Iturrigorri frontoian. Hura bukatu eta gero dantzazaleek dantzaldia izango dute Boleros 4 tal-

dearekin, eta gauerdian suzko errubera ikusgarriak botako dituzte.

MUSIKA ETA PILOTA PARTIDUAK

Andramari bigarrenari Leintz Bailarako Txirrindulari Lasterketak emango dio ongiatorria. 12:00etan, bestalde, herriko pilotarien partiduak egongo dira, eta 13:00etan Hortzuga taldeak kalea girotuko du. Arratsalde partean Bolo Txapelketa egongo da 16 urtetik beherakoentako eta gero, sokamuturra. 19:00etan Los 5 Bilbainos taldea egongo da Herriko Plazan, eta gauean profesionalen pilota partiduak Iturrigorri frontoian. Hori bukatu eta gero, Arantza eta Pantxoia taldearekin dantzaldia.

HIRUGARRENA KOADRILEN EGUNA

Andramari hirugarrenean Koadrilen Eguna ospatuko da; hala, herriko koadrilek kaleko giroa berotuko dute. Sokamuturrak emango dio hasiera egunari, eta gero, urtero moduan, Hankagorri antzerki taldea egongo da herriko umeekin. *Tristeak kontso-latzeko marmita* lana ekarriko du. Eguerdian paella izango da Herriko Plazara hurreratzen diren guztiendako; gura beste eta debalde. Bazkal ostean 16 urtetik beherakoek herri jolasak izango dituzte, eta nagusiendako Elvi bentrilokuoa egongo da. Aurten ere gehien animatzen duten koadrilei sariak emango dizkiete. Eguna eta jaiak amaitzeko Kresala taldearekin dantzaldia izango da.

TXUTXUMUTXUA



Jende gutxi baina giro polita presoen aldeko ekintzetan

Euskal Presoak Euskal Herriara Aretxabaletako plataformak antolatutako astea zapatuan bukatu zuten. Hainbat ekintza egin zituzten joan den astean: bertso ekitaldia, Bat Gehio taldearen kontzertua... Xabier Amurizak ez zuen etortzerik izan, baina ordezko dotoreak bidali zituen. Zapatu goizean Kurtzebarrira ibilaldia egin zuten. Tontorrean ez zen jende askorik batu, baina eguraldi ezin hobea zegoen eta giro polita sortu zen bai gurutze inguruan, bai hamarretakoa egiterakoan. Eta astea bukatzeko, bazkaria antolatu zuten, eta hainbat lagun batu ziren Mitarte plazan. /M.A.

LABUR

Kirol etxea, urtero legez, itxita egongo da abuztu guztian

Uztailaren 31n itxiko dituzte kirol etxeko ateak eta irailaren 1a bitartean itxita egongo da urtero moduan. Tarte horretan, Aretxabaletako bazkideak Arrasateko igerilekura joan ahal izango dira.

Tabernek terraza jartzeko baldintzak bete behar dituzte

Udalak taberna aurrean terraza jartzeko baimena duten tabernariei jarritako ordutegia bete behar dutela gogorazi gura die. Astegunetan 12:00etatik 23:00etara egon daitezke mahaiak eta aulkiak kanpoan; aste bukaeretan, ostera, 00:00ak arte. Abuztuan eta herriko jaietan ordutegi berezia izango dute.

Santiago jaiak ospatuko dituzte goroetarrek

Goroetarrek gaur arratsaldean hasiko dira Santiago jaiak ospatzen. Hala ere, bihar, Santiago eguna, eta zapatua izango dituzte ospakizun garrantzitsuenak. Bihar meza nagusia izango dute 12:30ean, eta ostean luntxa. Etzi, ostera, mus eta briska txapelketak egingo dituzte; 21:00etan auzo afaria eta gero dantzaldia.

Urkulu bueltan dagoen bidea konpontzen ibili dira

Urkulu bueltan dagoen bidea konpontzen hasi ziren astelehenean, hilaren 21ean, eta pare bat egunean bukatu dituzte lanok. Gipuzkoako Foru Aldundiko langileak ibili ziren zulo handienak berdinu eta errepede ingurua txukuntzen. Hala ere, ezin da esan aldaketa handia hartu duenik bideak.

Abuztuan ez dute mezarik izango auzoetako elizetan

Abadeek, gainerako langileok bezalaxe, oporrak hartuko dituzte, eta hori dela eta abuztuan ez dute mezarik izango auzoetako elizetan. Hala ere, auzo batzuetan, Mendiolan esaterako, mezarik ez baina otoitzaldiak egingo dituzte auzotarrek domekero. Meza entzun gura duenak, bestalde, Aretxabaletako parrokiara jaitsi beharko du.



MURRUKIXO MENDIZALE ELKARTEA

Gurutzea jarri zuteneko 50. urteurrena ospatu zutenean, Kurtzebarri tontorreko zelaia jendez gainezka egon ziren.

MENDIA

Hainbat ospakizun antolatu dituzte Kurtzebarriren 75. urteurrenerako

Irailaren 14an ospatuko dute Kurtzebarriko Eguna; aurretik, baina, Mendi Astea egongo da

AMAGOIA LASAGABASTER

Aurten Kurtzebarri Eguna berezia izango da. Aretxabale-tako mendi ezagunenean gurutzea jarri zuteneko 75. urteurrena beteko da, eta arrazoi horregatik aparteko ospakizunak antolatu dituzte Murrukixokoek. Ekitaldi horiek irail hasieran egingo dituzte.

Diamantezko ezteiak beteko ditu irailaren 14an Kurtzebarri mendiak. Hain justu, duela 75 urte jarri zuten tontorrean duen gurutzea. Orduan, sekulako festa egin zuten, eta herritar ugari batu ziren Kurtzebarri mendiko zelaietan. Aurten ere Murrukixo Mendizale Elkarteak ospakizun bereziak egin gura dituzte.

MENDI ASTEA

Aurten Kurtzebarri Eguna irailaren 14an izango da. Egun horretan egingo dute festa handia, bai

na aurretik, giroa berotzen hasteko, irailaren 8tik 12ra bitartean Mendi Astea antolatu dute. Besteak beste, mendiaren inguruko diapositiba emanaldiak egingo dituzte.

Mendi Astearen estreinaldia Ramon Iturrikastillo aretxabale-tarrak egingo du. Ramonek *Nepalen 7.000ko mendi galdu batetara igoera* diapositiba emanaldia egingo du irailaren 8an. Hurrengo egunetan, berriz, beste mendizale batzuk izango dira protagonista. Irailaren 9an, Aloña-Mendi Espeleologia taldeak *Aitzgorriko parkea, lur azpitik* izeneko lana erakutsiko du. 10ean, Juanjo San Sebastian kirolari ezagunak *Montañismo Vasco* bideo emanaldia egingo du. 11n, Aranzadiko kideak izango dira Aretxabaletan, eta *Inguruko historiaurreaz* berbaldua egingo dute. Azkenik, 12an, Jon Belokiren eskutik *Jainkoaren Altxoa* diapositiba ekitaldia egingo da ikusgai. Emanaldi horiek

19:00etan izango dira, Kurtzebarri Eskolako aretoan. Bestalde, irailaren 8tik 22ra bitartean Kurtzebarri mendiaren gaineko erretratu zaharren erakusketa jarriko dute garai bateko Pagaldai tabernan. Besteak beste, 50. urteurreneko argazkiak egingo dira.

KURTZEBARRI EGUNA

Urteurreneko ospakizunetaz herri-tar guztiak jakinaren gainean egon daitezten eta, bide batez, Kurtzebarriko gurutzea nabarmentzeko, irailaren 13an, gauerdian, gurutzea argiztatu egingo dute. Hala, gau osoan, eta eguraldiak lagunduz gero, behintzat, herritik ikusi ahal izango dugu mendi tontorreko gurutzea. Azkenik, irailaren 14an, ospakizunekin amaitzeko, Kurtzebarri ohiko mendi ibilaldia egingo dute. Han meza egongo da eta gero luntxa. Eta gero, gura duenak Leixargaraten gelditu eta herri bazkarian parte hartzeko aukera izango du.

PILOTA

Pilotari profesionalen partiduak izango dira Andramaixetako bigarren egunean

Iaz bezala, aurten ere pilota partidu profesionalak jokatuko dituzte abuztuaren 16an. Eskuz binakako lehenengo partidua Beloki II.ak eta Mendiluzek Mendizabalen eta Pinedoren aurka jokatuko dute. Bigarrenen, berriz, Unanuek eta Errastik Berasaluzek VIII.aren eta Armendarizen aurka neurtuko dituzte indarrak. Partiduak 22:30ean hasiko dira, Iturrigorri pilotalekuan.

TXIRRINDULARITZA

65. Leintz Balarari Itzulia egingo dute 23 urte azpiko eta elite mailako txirrindulariek

Abuztuaren 16an, Andramaixetako bigarren egunean, 65. Leintz Balarari Itzulia jokatuko da. Guztira 120 kilometro egin beharko dituzte 23 urte azpiko eta elite mailako txirrindulariek. Durana kalean hasiko da proba, eta Oñatitik Legazpira abiatuko dira lehenengo. Gero, besteak beste, Gatzagaraino joango dira. Amaiera, betiko moduan, Aretxabaleko Durana kalean izango dute.

FOTOKIROLA




Sergi López de Galdeano squashean nagusi

Sergi López de Galdeano antzuolarrak irabazi du Debagoienerako kirol zerbitzuek urtero antolatzen duten Squash Txapelketa. Bigarren, Sergiren aurkako finaleko partidua galdu eta gero, Luis Mari Gordo gelditu da. Hirugarren, berriz, Gaizka Oruna izan da eta laugarren, Haritz Gordo. Azken hiru horiek arrasatearrak dira. Aurten hamabi debagoien-dar ibili dira lehian Squash Txapelketan. Tamalez horietatik bat bera ere ez zen aretxabaletarra. /A.L.



Taberna Berri jatetxea

Durana 26
ARETXABALETA
Tel.943 79 20 67



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza


Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

BASABE jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

ERRETRATUZAHARRA

Andramaixetako txirrindulari lasterketak



Frantziako Tourra dela eta ez dela berotuta ibili gara denok, baina txirrindularitzarekiko zaletasuna ez da orain sortu. Andramaixetako Leintz Balarako Itzulia, esaterako, 65. aldiz egingo da aurten. Orduan, gainera, inguruko bakarria izaten zen eta zale ugari erakartzen zituen. Izan ere, ez ziren nolanhiko txirrindulariak etortzen, izen handiko *karreristak* baizik, gero profesional mailan maila handia eman dutenak. Horren adibide dugu erretratu agertzen den Kas taldeko **González Linares**.

Mutikoak eta ez hain mutikoak Andramaixetako txirrindulari lasterketa noiz helduko zain egoten ziren. Aparteko giroa sortzen zen lasterketa hasi aurreko orduetan kaleetan: txirrindulariak gora eta behera beroketa ariketak egiten, masajeak emateko krema usaina... Hura zen hura antolaketa; automobilak barra-barra, txirrindulari taldeetakoak, medikuarena, epaileena; poliziak motoekin... Etorritako txirrindulariei

zerrenda pasatu eta hor doaz guztiak aurrera. Ikusleek, ostera, ezin eutsi emozioari: "Badatoz, badatoz Santutxutik gora...", eta motoen sirenen ostean, zzzzzzz, zzzzzzz... Ziztu bizian txirrindulariak. Gatzagaraino joan eta etorria 40 minutu inguruan egiten zuten, ikusleak aho zabalik utzita:

"Hemen daudela? Ezin da izan..." Baina bai, norgehiagoka esprintean eta dagoeneko badago txapelduna; zaleak, berriz, pozik irabazlearekin batera. Lore sorta eta sariak eman eta gero, bukatu da. Badoaz automobilak, *karreristak* eta bizikletak. Hurrengo urtera arte itxaron behar. Izan ere,


urtean behin bakarrik egitea txirrindulari lasterketa... Eta hala pentsatuta gehiago antolatzen hasteko konpromisoa hartu zuen taldetxo batek. Esan eta egin, gainera.

Argazkia eta informazioa: Learko

NOLAALDATUDIRENGAUZAK


Errekaren beste aldeko mendi hegala

Zeresan ugari eman du azken hilabeteotan Deba Errekaren beste aldean dagoen mendi hegalak. Etxebizitzak egiteko izendatuta dago, eta etxebizitzak izango ditugu urte batzuk barru. Orain dela urte batzuk, ostera, txabolak eta ortuak zeuden bertan. Gero, Udalak aginduta, txabola gehientsuenak kendu egin zituzten eta ortuak ere desagertuz joan ziren.



≈ 1994

Ortu eta txabola ugari zeuden, 90eko hamarkadaren hasieran, Deba errekaren beste aldeko hegalean.



2003


Txabolak eta ortuak kendu egin zituzten, eta gaur egun zelaiak bakarrik daude. Laster etxebizitzak egingo dituzte kirol etxetik Lausittara bitartean.



TABERNA

ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34



AZKARATE
AROTEGIA


Telleria 19, B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20



Matikua jatetsxea

Azatza auzoa
ARETXABALETA
943 79 16 68

Jon Díaz



Karakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Eguena / 2003ko uztailaren 24a / 134. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebbarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Lan egiteko bost batzorde eratu ditu udalbatza berriak

AMAGOIA LASAGABASTER

Duela astebete baino gehiago zehaztu zuten, oraingo agintaldiko lehenengo ohiko osoko bilkuran, Eskoriatzako udal antolamendu berria. Bost batzorde osatu dituzte, eta horietatik lautan EA-EAJ koalizioako kideak izango dira batzordeburu.

Uztailaren 11n egin zuten, Eskoriatzako udaletxean, estreinatu berri den agintaldiko lehenengo ohiko osoko bilkura. Udalbatzarrean zinegotzi bik bakarrik egin zuten kale: Ezker Batuko Jabier Zugastik herritik kanpo zegoela abisatu zuen; PSE-EEko Julio Bellidok, bestalde, zinegotzi kargua hartu barik duen kide bakarrak, ez zuen azalpenik eman.

GOBERNU BATZORDERIK EZ

Eskoriatzan moduan, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan ez da derrigorrezkoa gobernu batzordea osatzea. Hala, udalbatza berriak ez du aldaketarik egin udal antolamenduan, eta aurten ere batzordeen bitartez lan egingo du. Hala ere, aurre-

ko agintaldian ez bezala, aurten lau batzorde beharrean bost egongo dira. Lautan azken hauteskundeak irabazi zituen EA-EAJko zinegotziak izango dira nagusi. Juan Karlos Bengoa alkateak bi batzorde informatiboren arduraria izango du: Ogasuna, batetik, eta Pertsonal eta Gobernu, bestetik; Josu Ezkurdia Hirigintza-

ko batzordeburu izango da; eta Maider Otamendik Kultura arloan egingo du lan. Bestalde, bosgarren batzordea, Zerbitzu Sozialen gainekoa, Ezker Batuko Jabier Zugastik hartuko du. Horien guztien azpitik hainbat arlori dagozkien azpibatzerdeak egongo dira. Horietan ere Udaleko pertsona batek izango du arduraria. Edozelan ere, izendapen horiek udako oporraldiaren ostean egingo dituzte.

Osoko bilkurei dagokienez, ez da aldaketarik izango aurreko agintalditik hona. Zinegotzi guztien onarpenarekin, hilabete bakoitzeko azken egunetan, arratsaldeko zazpitan egingo dituzte ohiko osoko bilkurak.

Bost batzorde informatibo osatu dituzte, eta lautan EA-EAJko kideak izango dira buru

EA-EAJ koalizioak Kontzejupe plataformaren presentzia bermatu gura du Udalean

KONTZEJUPEREKIN HARTU-EMANAK

EA-EAJ koalizioak Kontzejupe plataformaren presentzia bermatu gura du Udalean. Arrazoi horregatik, hainbat elkarrizketa izan dituzte alderdi bi horietako kideek. Maider Otamendi zinegotziaren esanetan, elkarrizketa horiek bide onetik doaz. Hala jarraituz gero, akordioa egingo dute, eta irailean Kontzejupeko kideek aukera izango dute Udalean parte hartzeko.



Gutxitu psikikoak Aozaratzen

Aurten ere ez dute ez hutsik egin herriko gutxitu psikikoek. Aurreko urteotan moduan, Maritxu Alegriaren ardurapean oporralditxo pasatu dute Aretxabaletako Aozaratza auzoan. Eskoriatzako zortzi gaixo izan dira bertan, astebetez. Bi helburu nagusi ditu egonaldiak: "Batetik, gaixoen familiei astea lasai, ardura barik, pasatzeko aukera ematea; eta, bestetik, gaixoen arteko harremanak sendotzea", esan digu Maritxuk. Mario Padilla txistularia lagun izan zuten egun batez, eta siestarako astirik barik, gaixook esan ziguten ondo baino hobeto pasatu zutela eguna.



Omenaldi beroa Esteban Arrietari Gatzagan

Arrietak txirrindularitzaren alde egindako lanagatik omenaldi beroa jaso zuen Gatzagan. *Hazia erein zenutenoi, urte batzuk beranduago, esker onez zioen Gatzagako alkateak Arrietari eman zion oroigarriak. Omenaldia Gatzagako 25. Txirrindulari Lasterketaren aurkezpenean egin zioten Arrietari. Anjel Arrese eta Manolo Zubillaga aretxabaletarrak eta Inazio Arranz gasteiztarra ere omendu zituzten. Azken baten, txirrindularitzaren alde lan egindako guztiak omendu gura izan zituzten./A.G.*

LABUR

Xabier Gómez parrokoaren omenez bazkaria

Azkeneko sei urteotan Eskoriatzako parroko izan den Xabier Gómezek irailean herria utziko duela-eta, agur bazkaria egin gura diote herriarrek. Parrokiako lagunak ari dira herri bazkaria antolatzen. Irailaren 7an egingo duten bazkarira eskoriatzar guztiak gonbidatu gura dituzte. Hala, bazkarira joateko txartelak salgai daude Mirentxu eta Urrestila tabernetan eta Viteri dendan. Txartelak -15 euro- erosteko azkeneko eguna irailaren 2a izango da.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea.....	943 71 44 07
Udal bulegoak.....	943 71 45 32
Udaltzaingoa.....	943 71 44 07
Euskaltegia.....	943 79 21 68
Kultura etxea.....	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea.....	943 71 31 36
Kirol etxea.....	943 71 53 28
Liburutegia.....	943 71 31 35
Luis Eceiza.....	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola.....	943 71 44 86
Almen.....	943 71 49 07
Museo Eskola.....	943 71 54 53
Axtroki.....	943 71 40 77
HUHEZI.....	943 71 41 57
Osakidetza.....	943 71 44 52
Telesko.....	943 71 49 17
Taxiak.....	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate).....	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara).....	943 76 55 76
Ertzaizntza (Arrasate).....	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati).....	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga).....	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz).....	945 23 20 30
PESA (Arrasate).....	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate).....	943 77 10 43
SOS Deiak.....	112

OHARRAK

MANKOMUNITATEAREN OHARRA

Debagoieneko Mankomunitateak herritarrei jakinarazi gura die abuztuan ez dutela traste zaharren bilketarik egingo herrian. Zabor-bilketa, aldiz, ohiko egunetan eta orduetan egingo dute.

ANDRA MARI JAIK GELLAO ETA MAZMELAN

Abuztaren 15ean, Andra Mari eguna ospatuko dute Mazmelako eta Gellaoko auzotarrek. Mazmelan, beste auzo batzuetan moduan mezarik egongo ez bada ere abuztuan, Andra Mari egunean 11:00etan izango dute auzotarrek meza.

AXTROKIRENAGENDA

ONDO PASATU OPORRAK!

Axtroki Euskara Elkarteak oporrak hartuko dituela eta, bazkide eta herritar guztiei oporrak ondo pasatzea opa die, eta irailean itzuliko direla jakinarazi.

145 UME IBILI DIRA AURTENGO UDALEKUETAN

Festa ederrarekin esan diote agur herriko umeek aurtengo udalekuei

AINZANE GARDOKI

Gaur goizean amaitu dira aurtengo udalekuak. Uztailearen 7an hasi ziren eta hiru astez, goiz eta arratsaldean, makinatxo bat ekin-tza egin dituzte Eskoriatzako umeek. "Egunean bost orduz ibili dira elkarrekin. 3 eta 12 urte arteko 145 ume ibili dira udalekuetan, 18 begiraleren esanetara. Azkeneko asteotan herria umez gainezka egon da, eta horrek bizitasun berezia eman dio herriari", esan digu udalekuetako arduradun Eneritz Jauregik.

Gaur amaierako jaiak izan dute. Tonbola egin dute: umeek zenbaki bana hartu dute, eta sari ugari banatu dituzte arduradunek ume guztien artean. Pozez zorutzen ikusi ahal izan dira kale eta plaza bazterretan herriko txikienak. Gero, berriz, Azkona pailazoen emanaldia izan dute udalekuei agur esateko: "Orokorrean balorazio ona egin dezakegu. Umeek denetarik egiteko aukera izan dute, eta oso ondo pasatu duten dudarik ez dugu. Eskulanak, Altxorraren Bila, kamisetak mar-

"Euskaraz berba eginez, ondo pasatzea da udalekuen helburua"

gotu eta euskal jolas ugari ikasi dituzte, besteak beste, hiru aste hauetan. Baina egia da egun bereziak gurago dituztela umeek: San Ferminetako entzierroak, Uraren Egunak, Izarren Egunak eta halakoek itzelezko arrakasta izan dute umeen artean. Egubakoitzetan mendira irteeratxoak egin dituzte: Mendiolan, Apotzagan, Elizabarrin, Aitzorrotzen eta Urkulun izan gara. Igerilekura egindako irteerak eta 7 urtetik gorakoek kiroldegiko rokodromoan egindako ahaleginak ere gogo handiz hartu dituzte umeek. Gainera, kontuan hartu behar da eguraldiak asko lagundu duela", jarraitu du Eneritzek.



KULTURA SAILA

Izarren Egunean herritar askok eta askok txalo zaparradaz hartu zituzten umeak.

Uztaileko udalekuek jarduera polita dira umeendako, eta Eneritzen esanetan urte batetik bestera udalekuen helburu nagusia berbera da: "Umeek euskaraz ber-

ba eginez ondo pasatzea da udalekuak antolatzen ditugunon gogoia eta helburua". Aurten ere helburuak bete dituztela esan digu udalekuetako arduradunak.

TXUTXUMUTXUA



Madalena festak Marinen


Uztailearen 22an da Madalena eguna, baina marindarrek domekan, hilaren 27an, ospatuko dute festa. Eguerdian meza nagusia izango dute. Gero, herritarrendako luntxa izango da eta Marinen dauden 20 baserrietako ugazabek, ohi-turari jarraituz, gonbidatu ugari hartuko dituzte etxeetan. Lehenago erromeria ederra eta ezinbesteko giroa izaten zen Marinen. Trenak ere jende ugari ekartzen zuen. Baina domekan ez da girorik faltako.

LABUR

Arrakasta handia izan dute kanpoko zinema emanaldiek

Herritar ugari batu dira azken hilabeteetan Herriko Plazan eman dituzten filmak ikusteko. Eguraldia lagun izan dute, eta film bakarra geratu da eman barik. Aspaldiko urteotan, iaz izan ezik, uztaile guztietan antolatu izan dituzte kanpoko zinema emanaldiak. Oraindik badago, gainera, film gehiago ikusteko aukera: bihar, egubakoitz, *El otro lado de la cama* (gaztelaniaz) emango dute; 28an, *Ametsen lapurra* (euskaraz); eta 30ean, *Ghost World* (gaztelaniaz).

BEIRALAN KRISTALDEGIA




- Ispilu bizelatua
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurria eginiko edozelango lanak

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670.997 274

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru Ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61



Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

GATZAGAKO 25. TXIRRINDULARI LASTERKETA

Omenaldi polita egin diete ibarreko txirrindulari ohiei

AINTZANE GARDOKI

Joan den egubakoitzean, uztailaren 18an, egin zuten Gatzagako 25. Txirrindulari Lasterketa-aren aurkezpena. 1974an Dorleta Txirrindulari batzordea sortu zuten, eta garai hartan batzordekide izan zirenak omendu zituzten. Manolo Zubillagak ere ezustekoa izan zuen.

70eko hamarkadan Dorleta Txirrindulari Elkartea sortu eta luzaroan lanean ibili ziren Inazio Arranz gasteiztarra, Esteban Arrieta eskoriatzarra eta Anjel Arrese aretxabaletarra omendu zituzten joan den egubakoitzean Gatzagan.

Hazia erein zenutenoi, urte batzuk beranduago, ezker onez zioen oroigarri bana eman zieten Dorleta Txirrindulari batzordeko kideek omenduei. Gatzagako alkate Jose-rra Pérezek eman zien oroigarria Anjel Arreseri eta Esteban Arrietari. Manolo Zubillaga batzordekide aretxabaletarrak, berriz, Inazio Arranzi eman zion oroigarria. Pozik jaso zuten hiru omenduek oroigarria.

MANOLO ZUBILLAGARI OMENALDIA

Baina herritarrekin osatutako batzordeak Manolo Zubillagari ere ezusteko ederra eman zion; izan ere, hiru omenduek jaso zuten oroigarri berbera eman zioten aretxabaletarrari. "Hau da hau ezustekoa! Ez nuen inondik inora horrelakorik espero", esan zuen behin eta berriro Manolo Zubillagak.

Azkeneko hilabeteotan txirrindularitza indartzeko asmoz lanean ari diren herri batzordeko kideek isilean gorde dute, azkeneko unera arte, eurekin batera batzordean lanean dabilen Manolo Zubillagari ere omenalditxo egingo ziotela beste hiru omenduekin batera. Manolo Zubillagak berak omenalditxo jaso aurretik prentsasurre-

"Hau da hau ezustekoa! Ez nuen inondik inora horrelakorik espero"

koan azaldu zien batutakoei 74an sortu zen Dorleta Txirrindulari Elkartearen gainekoak: "Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagako lagunek osatu zuten elkartea. 1978an Gatzagako lehenengo lasterketa antolatu genuen. Geroago, profesionalen lasterketa ere egin genuen, baita ziklokros eta zikloturista probak ere. Urtetan nahiko ahul ibili garenez, 25. urteurrena aitzakia hartuta hainbat ekitaldi antolatu gura izan ditugu", gogoratu zuen Zubillagak.

25. LASTERKETA IRAILAREN 7AN

Batzordeko presidente Alberto Altubek, berriz, irailaren 7ko lasterketaren gainekoak eman zizkien aditzera Garro jauregian batutakoei: "133 kilometro izango ditu. Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako lurraldeetan barrena ibiliko dira txirrindulariak. Estatuko talde amateur onenak hemen izango ditugu. Garrantzi handia du lasterketa horrek. Hemen garaile izan diren txirrindulari asko profesionaletan daude edo ibili dira".

Bukatzekeo luntxa izan zuten txirrindularitzaren lagunek.

TXUTXUMUTXUA



Datorren urtean itzuliko dira udalekuak

17 neska-mutiko ondo baino hobeto ibili dira udalekuetan. 3 eta 10-urte arteko umeek denetarik egiteko aukera izan dute. Gura beste jolas egin, eskulanak egin, Landara eta Eskoriatzako igerilekura irteeratxoak egin, eta Gaztanuzketako mendi etxeetan gau polita pasatu zuten. Azkeneko egunean, berriz, udalekuei agur esateko Potxin eta Patxin pailazoez barrea eta algara eragin zuten. Askari ederra izan zuten, gero, Toki Ederren.



Gemma Lorenzoren marrazkia irabazle

17 urtetik beherako ume eta gaztetxoek esku utzi gura izan du Udalak aurtengo Andramai-xak iragartzeko kartela. 14 lagunek hartu dute parte: gazteenak 3 urte zituen eta nagusienak, berriz, 15. Bozketa bitartez erabaki zuten sari nagusia nori eman. 13 herritarrek eman zuten botoa, eta 6 urte dituen Gemma Lorenzok irabazi zuen lehenengo saria; Iker Barandiaranek bigarrena; eta Ane Zubillagak hirugarrena. Gemma hondartzara joan zenez, anaiak jaso zuen saria. Argazkian, irabazleak./A.G.

LABUR

Gatzagako areto futboleko taldeak finala Otxandion

Gatzagak ofizialki ez du areto futboleko talderik, baina noizean behin herriko lagun koardila bat elkartu egiten da baloari ostiko batzuk emateko. Eta ez pentsa Gatzaga-Pates Zubia taldekoak gaizki moldatzen direnik; izan ere, Otxandion egin den areto futboleko txapelketan finalera heldu dira. Bihar egubakoitza, hilaren 25a, Otxandioko Danoen taldearen kontra jokatu dute txapelketako azkeneko partidua. Hitzordua 21:00etan, Otxandioko frontoian.



- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

**Calderería
Cantera, S.L.**
ALUMINIOAK

Zurgintza alumioa erabilita

Aingerugardakoa ibilbidea z/g
T. 943 71 49 11 F. 943 71 44 21
ESKORIATZA

**AZKOAGA
ESTANKOA**

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida

Zure etxearen osasun onerako



RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA
“R.E.L.E.”
Gotzon Beitia Lazkano
Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65
Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETA

AIDE GAS S.L.

Loramendi 8, Aretxabaleta.
Tel.: 943 71 27 73 / 605 71 27 05

**Gasa • Berogailuak
Bainuak • Iturgintza**

PINTURAS
ESKORIATZA



- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ezk. ESKORIATZA
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769



Jon Axpe Oyanguren
OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

Iturgintza • Gasa • Berogailuak • Peetrolio-produktuak • limatizazioa

L. GONZALEZ
PINTURAK
Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETA
686 113 581 / 943 79 65 46

TXOMIN
igeltserotza
ARETXABALETA

ERREKABARREN 20
607 739 835 / 943 79 63 94



URKO
MANTENIMIENTO, S.L.

Instalazioen mantenu osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

Dintura eta dekorazioa



Gimbert

San Migel 13, behe C
ARETXABALETA
609 143 119

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA



MUSAKOLA
Pinturak

Durana 27, 3. solairua
ARETXABALETA
Tel. 943 77 08 16 / 635 72 31 50

J.J. ITURGINTZA
IRURE



URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE 15
ARETXABALETA

943 793 187



Aretxabaletako Udalak Andramaixa zorientsuak opa dizkizue aretxabaletar eta bertara hurbiltzen zareten guztioi.



ARETXABALETAKO
UDALA